

Nahiz eta irabazleek eta haien lanek gainerako idazleen aitormena izan, eztabaida eta polemika iturburu izan dira aurten Euskadi sariak, eta berez dagokien helbururako ezinduta gelditu dira.

JUAN LUIS ZABALA

Berehalako batean hiltzeko arriskurik gabe itxuraz, baina zauri larriekin amaituko dute 2007a euskal literaturaren urteko produktio libururik onenak nabarmentzeko ematen diren bi sari garrantzitsuk: Euskadi sariak eta Kritika sariak. Zauri horien sintoma nabarmen eta begi-bistakoenak idazle batzuegandik jaso dituzten arbuio eta uko irmoak izan dira.

Koldo Izagirrek eta Jon Alonsok BERRIA egunkariko *Iritzia* saileko *Zuzendariari* atalean argitaratu dituzten artikuluak dira Euskadi sariaren inguruan sortu den gatazka azken agerpenak.

Alonso eta Izagirre *Utikan Euskadi Sariak* manifestuaren sinatzaileen artean daude. Manifestuaren azken puntuko azken esaldiak honako hau dio: «Alegia, ez dugula nahi gure lanak Euskadi Sari hauetan erabil ditzaten». Baina Izagirrerren *Rimmel* poema liburua (Susa) eta Alonsoren *Erretzailleen eremua* ipuin liburua (Susa) finalista izateko hautatu zituen Euskadi sarietako epaimahaia, eta halaxe jakinarazi zieten Jaurilaritzatik bi idazleei, telefono bidez lehenik, idatziz gero. Akats bat ere gertatu zen komunikazio horretan: bi liburuak helduen literaturaren arlokoak izan arren, idatzizko jakinarazpen ofizialetan «haur eta gazteen-tzako euskarazko literatura modallitatean» finalista zirela adierazi zieten idazleei.

Hala Izagirrek nola Alonsok sariaren arauak ezarritako epearen barruan jakinarazi zieten antolatzaileei uko egiten ziotela finalista izateari, eta horrela geratu ziren lehiatik kanpo *Rimmel* eta *Erretzailleen eremua*. Horretaz gain, uko hori publiko egin dute BERRIA egunkarian argitaratutako gutun banatan, irailaren 23an Izagirrek, azaroaren 8an Alonsok.

Gaiaren inguruan aurretik eginak zituen adierazpen publiko guz-

«Kezkagarriena da gure agerraldi publikoak ahuntzaren gaurdiko ezturen balioa izan duela»

EDORTA JIMENEZ
"UTIKAN" MANIFESTUAREN SINATZAILEA

«Ukoaren aldeko jarrerak jakinarazpen ofiziala behar du, iritzi aldaketak eta inpu gnazioak saihesteko»

KARLOS OTEGI
EUSKADI SARIETAKO EPAIMAHAIKO KIDEA



Utikan Euskadi Sariak manifestuaren aurkezpena, otsailean, Donostiako Bulebarrean. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKO PRESS

Sariak **zauritu** ziren urtea

tien ostean bere liburu bat finalista izendatua izatea eta, ondorioz, Jaurilaritzara idatzizko ukoa bidali behar izatea «umilazio txiki bat» izan da Alonsorentzat. Edorta Jimenez idazle eta *Utikan Euskadi Sariak* manifestuaren sinatzaileen artean, *umilazio* hitza «bigunegia» da Alonso eta Izagirrerri egin dietena azaltzeko.

«Kezkagarriena da gure agerraldi publikoak ahuntzaren gaurdiko ezturen balioa izan duela», azaldu du Jimenezek, manifestuaren aurkezpena gogora ekarriz. «Eta ez zen gaurdian izan, ez gara ahuntzak, eta ez zen ezula izan. Donostiako Bulebarrean izan zen, eguerdiz, eta hitzez».

«Argi dago Miren Azkaratek jasozuela gure agerraldiaren eta gure manifestuaren berri», ohartarazi du Jimenezek, «Euskadi sarietan parte hartu duten 200 epaimahikideen lanarekin eta saritutako idazleenekin injustuak izan ginela adierazi baitzuen».

UMILAZIO ASMORIK GABE. Bestelakoa da Karlos Otegi idazle, irakasle eta euskal literaturako Euskadi sariako epaimahaiko buruaren ikuspuntua. Epaimahikideek nahitaezkoa zuten, Otegiaren iritziz, Izagirre eta Alonsoren liburuak aintzat hartzea. «Ez dakit beste sistema bat erabiltzerik ba otezegoen», dio. «Nire ustez, eta iritzi bera dute beste epaimahakide batzuek, ukoaren aldeko jarrera sendoa uko horren jakinarazpen ofiziala behar du; bestela, gerta daiteke behiala ukoa adierazitako idazle batek iritzia aldatzea, eta are inpu gnazioa aurkeztea ere. Kontu egin ezazu

datorren urtean erabakitzen dela idazle baten obra ez aintzat hartzea, aurtengo otsailean manifestua sinatu duelako... Horrelako arazoak saihestea bilatu da, inola ere ez inor umilatzeara».

Otegi uste du egokiena litzatekeela azkenera arte hartzea aintzat obra guztiak, manifestuaren sinatzaileenak barne. «Gero, sari-tua nor den jakinarazitakoan, sari-tuak aukera izango luke sariari uko egiteko. Ezaguna da Jean Paul Sartrek Nobelsariari nola uko egin zion, adibidez».

Harrera ona izan dute Euskadi sariaren aurtengo irabazleek. Inork ez ditu zalantzan jarri, euskarazko sariaren kasuan behintzat, sariak irabazi dituzten egileen eta haien liburu sarituen merezimenduak.

Baina begien bistakoa da Euskadi sariak, egun dauden egoeran, ezi-

nezkoa dutela berez dagokien xedeari erantzutea: urteko produktio osoa aintzat hartuz, arlo bakoitzeko liburu onena nabarmendu eta saritzea.

Utikan Euskadi Sariak manifestua sinatu zuten 37 idazle eta itzultzaileek hogeitaka liburu argitaratu zituzten iaz, euskal literaturaren, haur eta gazte literaturaren nahiz itzulpenaren arloan Euskadi sarietako hautagai izan zitezkeenak. Horietako bik gutxienez —ezin da jakin antzeko kasu gehiago izan den— finalista izateko adinako merezimendua dute, epaimahikideen ustez. Gisa berean, datorren urtean Euskadi sariaren lehiatik at izango dira Edorta Jimenez, Xabier Mendiguren Elizegi, Lutxo Egia eta Asier Serranoren aurtengo nobela berriak; Eider Rodriguez eta Lucien Etchezaharretaren ipuin

Irun Hiria eta Donostia Hiria, eraldatuta

Datorren urtean 50 urte beteko dituzte Kutxa Fundazioak antolatzen dituen literatur sari garrantzitsuenek, Irun Hiria (nobela eta poesia arlokoa, euskaraz eta gaztelaniaz) eta Donostia Hiria (ipuin eta antzerkia, euskaraz eta gaztelaniaz). Urteurren horrekin bat, aldaketak iragarri dituzte antolatzaileek.

Aldaketa horiek ez diete eragiten sariaren antolatzaileek jasotako kritika nagusiari, hots, lan sarituen argitalpeni; lan sarituak behar adinako ardurarik gabe argitaratu eta bilgietan hautsa pila-tzen utzi izana leporatu baitzaio, bi sari-rien kasuan, aspaldidanik, Kutxa Fundazioari. Kutxa Fundazioa izango da aurre-

rantzean ere liburu sarituen argitaratzaile, baina arlo horretaz modu egokian arduratuko den argitaletxe bat bilatzen hasia dago.

Kutxa Fundazioaren bi sariak datorren urtetik aurrera izango duten aldaketanagusia maiztasunarena da: bi urtetik behin egingo dira, urte bikoitietan Donostia Hiria eta bakoitietan Irun Hiria. Horrekin batera, sariaren diru kopurua bikoiztu egingo da, eta sari banaketa ez da egingo epaiaren berri eman eta urtebetera, hilabete batzuetara baizik, maiztzean, aste kultural baten barruan. Sari-tutako antzerki lanak antzezteko asmoa dute, gainera, aste horretan.

oinartitzko hemeroteka

Euskadi sariak buruz

- Jon Alonsoren 'Euskal irakurleei oharra' gutuna (2007-11-08): www.berria.info
- Koldo Izagirrerren 'Utikan' gutuna (2007-09-23): www.berria.info
- 'Utikan Euskadi Sariak' manifestua: www.utikan.com
- Jon Alonsoren 'Euskadi Sariak' artikulua (Argia aldizkariaren 2007ko urtekarian): www.argia.com/albiste.php?id=26961

Kritika sariak buruz

- Koldo Izagirrerren 'Kritika Sariari uko' artikulua (2007-04-06): www.berria.info

liburuak; Jose Luis Otamendi, Jon Arano, Gotzon Barandiaran eta Asier Serranoren poema liburuak; Jon Alonso, Txillardegia eta Markos Zapaiaren saiakerak; Joxan Elsegik, Idoia Gilleneak eta Juan Mari Mendizabalek egindako literatur itzulpenak...

ALDAKETAK, GAZTELANIAZKOEN SAILEAN.

Jaurilaritzak ez du iragarri aldaketarik euskal literaturari dagozkien hiru ataletako Euskadi sariaren hurrengo urteetako ekitaldiei begira, eta Miren Azkaratek manifestuaren inguruan egindako adierazpenek ez dute aldaketak egiteko asmoak dituztenik pentsatzeko motibito askorik ematen.

Gaztelaniazko literaturaren Euskadi sarietan, aldiz, aldaketak iragarri dituzte antolatzaileek: orain artean ez bezala, Euskal Herriari jaiotako izateko aski izango du gaztelaniaz ari den edozein idazle bere obra Euskadi sarietarako aintzat hartuta izan dadin.

Fernando Aranburu eta Javier Irazoki idazleen kasuetan oinarrituta —Euskal Herriari jaiotako dira biak, baina kanpoan bizi dira eta kanpoko argitaletxeen bidez kale-ratzen dituzte bere obrak— Isabel Zelaa PSEKO diputatuak gaiari buruzko galdera egin zuen Eusko Legebiltzarrean, eta arauen aldaketa izango da kezka horren azken emaitza. Euskadi sariaren inguruan euskal idazleek egindako keku eta agerraldiak ez dute, aitzitik, gisa horretako oihartzunik izan Eusko Legebiltzarrean.

KRITIKA SARIETAN ERE, UKOA. Finalista izendatu ondoren egileen ukoek lehiatik baztertu dituzten bi liburuak izan dira, hain zuzen ere —Koldo Izagirrerren *Rimmel* eta Jon Alonsoren *Erretzailleen erremuma*—. Kritika sariaren irabazleak aurten, poesiaren eta prosaren arloan hurrenez hurren. Koldo Izagirrek uko egin zion sariari, BERRIAN apirilaren 6an argitaratutako gutun baten bidez. Kritika saria «Euskadi Saria bera baino mekanismo ilunagoa» antolatuta dagoela salatu zuen Izagirrek.

Izagirrerren ukoa, ordea, sinbolikoa baino ezin zen izan, saria ere halakoxea baita, sinbolikoa guztiz: idazleak ez du jasotzen ez dirurik, ez garaikurririk, ez diplomarik... Ezta jakinarazpen ofizialik ere.